Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

427

Abuztuak 15, 2022

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Abuzturako planak
4-5 Euskal Jira
6 Caser
7 Xantalen Danborrada
8 Kirolak: Real Unión
9 Kirolak: Pentatloia
10 Oiassotik Irunera
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Iván Gómez
14 iGazte
15 Agenda

Euskal Jira abuztuko hitzordu ezinbestekoa da Irunen

- Adinekoentzako Egoitzak
- Mugaz gaineko Eguneko Zentroak, 365 egunez, Irun Hondarribia eta Hendaiarainoko garraio zerbitzuarekin
- Psikogeriatria unitateak
- Apartamenduak

Eta Caser Cuidadosekin, etxean behar dituzun zaintza edo laguntza zerbitzuak kudeatzen dizkizugu

caser residencial

Caser Residencial Anaka
Anaka kalea 8 - Irun

Caser Residencial Betharram
Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA

900 103 348
caseresidencial.es

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1922ko abuztuaren 20an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak orain dela 100 urte hirian albiste ziren gertaerak islatzen ditu. Aldizkariko lehen idatzian Valverde del Camino udalerriko zinegotzien diru-saria igo ostean, Irunen ere gauza bera gertatzeko arriskuaz ohartarazten da. Jarraian, "Atsegiñ-tar" batek Juanitari zuzendutako olerkia irakur daiteke. "Idealo" kolaboratzaileak berriz, mezan ikusitako Romanones kondea deskribatzen du. Bestalde, udako musika emanaldiak eta munduko moneten arteko aldea aipatzen ditu albiste laburretan. Orrialdearen amaieran, E.R. kolaboratzaile mitikoak futbola gainontzeko kirol modalitateei lekua jaten ari zaiela azaltzen du.

Aldizkariaren bigarren orrialdea kirol kronikarekin hasten da. Aurreko zenbakietan egin bezala, Ameriketara bidean dagoen Euskal taldearen bidaiaren berri ematen da. Era berean, Argentinan jokatutako lehen partiduaren porrota eta kirol hitzorduko gakoak aipatzen dira. "Un curioso" izenordea darabilen kolaboratzaileak El Cano marinelaren izenaren idazketa okerra sortzen ari den nahastea aipatzen du. Ondoren, asteburuan hirian María Gámez artistak eskainiko dituen antzerki emanaldien nondik norakoak azaltzen dira. "De todo un poco" atalean aldiz, azken egunetan Irunen gertatu diren 4 auto istripuak aipatzen dira, hirian barrena dabiltzan autoen abiadura murrizteko neurriak hartzea beharrezkoa dela salatzeko. Atal berean, "X" kolaboratzaileak ostegunetan musika bandak eskaintzen dituen kontzertuak aipatzen ditu, bai eta Colón pasealekuko egurrezko argi zutoinak metalezkoengatik aldatzeko beharra ere.

Azken orrialdean, "Notas Municipales" atalean, azken udal bilkurako erabakiak laburtzen dira. "Ecos de Sociedad" atalak, berriz, Irungo biztanle esanguratsuen bizitzetako azken nobedadeak biltzen ditu, hala nola, ezkontzak, bidaiak edo ehorzketak. "Noticias" berri laburrez osatutako atala da eta bertan, besteak beste, Viteri eskolako erlojuaren matxura aipatzen da, aldizkaria publizitatez betetako azken orrialdearekin amaitu aurretik.

Argazkiak:
38109: Bidasoaren bista. Irun-Iruña errepidea eta Elektra Irun-Endara zentrala lotzeko zubia eraikitzen ari diren langileak ikus daitezke (XX. mendearen hasiera).

38405: Irungo hirigunearen panoramika, 1902-1906 bitartean Ibaieta gainetik hartutako irudian. Lehenik eta behin, Ospitaleko pabiloi berriak eta Milagrosako kapera; Antso Urdanibiako Ospitalea, Santa Elena kalea, Urdanibia plaza, Sargia, Junkaleko eliza, Arbelaiz jauregia... (1902-1906).

57831: Iparraldeko etorbidean (jatorriz Frantziakoa deitua) zeuden Viteri Eskolak. Beste aldean, artadi bat, eta, ikastetxearen gainean, Mendibilgo bizitegi-eraikinak, 1915 urtearen inguruan berriki eraikitakoak.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Abuztuan udari azken zukua ateratzeko azken aukera eskaintzen du Irunek

Abuztuan udako azken egun beroak udazkenaren mehatxuarekin nahasten dira. Udako opor egunak amaitzear direnean, errutinara itzultzeko beharrak dakarren zapore gazia gozatu eta etxe inguruko bazter bereziak hobeto ezagutzeko aukera bikaina izan daiteke. Bada, Irunek era askotariko ekintzak proposatzen ditu abuztuan zehar uda behar baino lehen agurtu nahi ez dutenentzat.

Irugurutzeta
Irugurutzeta Euskadiko ondare industrialaren adierazgarririk onenetako bat da. Egun Aiako Harria Parke Naturala dena meatzaritza gune garrantzitsua izan da erromatarren garaitik XX. mendera arte. Beraz, meatzariek zeregin nabarmena izan dute Irungo historian. Bada, Irugurutzetako kiskaltze labeetako bateriarik handiena ezagutzeko aukeraz gain, inguruko mea galeria batera sartzeko aukera ematen du bisitak. Horrela, Oiasso Museoak antolatzen dituen bisita gidatuak Irungo ondarea ezagutzeko eta familiartean Parke Naturalaren sarrerako enklabe batez gozatzeko aukera paregabea dira.

Abuztuko ostiral guztietan, Oiasso Museoak Irungo erdialdea eta Irugurutzetako interpretazio zentroa lotuko ditu, mikrobus baten bidez. Autobusa Bisera zeneko autobus geralekutik abiatuko da, 11:00etan eta 17:00etan. Irugurutzetako meategiak eta kiskaltze labeak bisitatzeko erreserbak Oiasso Museoan bertan egin daitezke, 943639353 telefono zenbakira deituta edo info-oiassomuseo@irun.org helbide elektronikora idatzita.

Bestalde, abuztuaren 18a, osteguna, Santa Helena eguna da. Ama Xantalen ermita, inguruko aztarnategi arkeologiko nagusietako bat da eta egun horretan doan zabalik egongo da, 10:00etatik 20:00etara bitartean. Instalazioa bisitatu nahi dutenak sarrerako erakusketara sartu ahalko dira, eta nekropoliaren aztarnak lehenengo solairutik ikusi. Ama Xantalen egunean ermitako ateak zabaltzeko jardunaldia Alde Zaharra – San Juan auzo elkartearen ekimen bat da, dagoeneko urtetxo batzuk daramana martxan.

Bi erakusketa Oiasson
Abuztuan, Oiasso Museoaren egoitzan ikusgai jarraituko dute "Erraldoien bizkar gainean. Euskal arkeologiaren historia" eta "Theatrum mundi" aldi baterako erakusketek. Lehena euskal arkeologiaren 200 urteko historia errepasatzeko aukera paregabekoa da, eta, horretarako, azken mendeetan Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean egindako indusketa lanetan aurkitutako ehun pieza original hautatu baino gehiago darabiltza. "Theatrum mundi" argazki erakusketa, berriz, Méridako antzoki erromatarra zaharberritzeko proiektuen irudi argitaragabeek eta plano historikoek osatzen dute.
Biak ala biak doakoak dira, eta Museoaren betiko ordutegian ikus daitezke. Erakusketei buruzko informazio gehiago eskuratzeko deitu 943639353 telefono zenbakira edo info-oiassomuseo@irun.org helbide elektronikora idatzi.

Hiria ezagutzeko bisita gidatuak
Aurreko hiru urteetan esperientzia onak izan ondoren (uda bakoitzean bataz beste ehun bat bisita) berriz ere hirian bisita gidatuak antolatzeko ekimena itzuli da. Horrela, bada, abuztuaren 27ra arte, asteazkenero, 11:00etan, eta ostiralero, 17:00etan. Bisitaldiak Junkaleko elizatik aterako dira, eta parrokia, Oiassoko erromatar ingurua, Urdanibia plaza, Ama Xantalen eta udaletxea bisitatu ahal izango dira. Bisita gidatuak bi orduko iraupena izango du eta prezioa 2 eurokoa da pertsona bakoitzeko, baina 12 urte arteko haurrek bisita doan egin ahalko dute. Informazio gehiago eskuratu eta izen ematea egiteko 943 020 732 telefono zenbakira deitu edo www.bidasoaturismo.com helbidean kontsultatu.

Txingudi Ekoetxea
Txingudi Ekoetxea Plaiaundiko parke ekologikoaren sarreran dagoen zetroa da, eta bisitariek informazio mota oro aurkituko dute bertan, bai Plaiaundiri buruz bai badiari eta Txingudiko Plan Berezian sartutako naturguneei buruz. Txingudiko Ekoetxea egunero irekita egongo da, 10:00etatik 14:00etara, goizez, eta 16:00etatik 19:00etara, arratsaldez.

Bidasoko Interpretazio Zentroa
Bidasoko Interpretazio Zentroak hiru hiriei buruzko informazioa banatzeko harrera bat du. Bestalde, erakusketarako gunea ere badu, hiru gai nagusirekin erlazionaturik dauden taula desberdinak dituelarik: inguruko bioaniztasuna, Eurovelo sarea eta Irundik pasatzen den Santiago Bidea. Erakusketa eremuan, Bidasoa topagune gisa harturik, erlazionaturiko gaiak islatzen dira.

Sartzea doakoa da. Taldeak hartzen dira, hitzordua aurrez eginda eta ordutegia adostuta. Bidasoko Interpretazioa Zentroa udako ordutegian asteartetik ostegunera 10:00etatik 14:00etara dago zabalik, zubietan eta jai egunetan izan ezik. Ostiraletan, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:30era irekitzen ditu ateak eta, azkenik, larunbatetan eta igandeetan, 10:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 18:30era, zubietan eta jai egunetan izan ezik.

Irun Berdea
Abuzturako proposamenen zerrenda Lapurriturriko informazio gunearekin osatzen da. 10 urtetik gora

darama bisitari guztiei parkea ezagutzera ematen eta horretarako, hainbat jarduera egiten dira denboraldi osoan. Udaberrian, udan eta udazken hasieran jarduerak programatzeaz gainera, informazioguneak berak informazioa ematen die bisitari guztiei, paperean, eta parke naturalari buruzko azalpenak ere ematen dizkie, bai eta ibilbideei eta inguruko turismo eskaintzari buruz ere. Horrez gainera, informazio hau ere ematen dute. Lapurriturrik hainbat jarduera antolatzen ditu aldizka, hango flora eta fauna ezagutzera emateko. Informaziogunean arretarako ordutega ondorengoa da: Ekainetik urrira arteko asteburuetan eta uztail eta abuztuko jai egunetan goizeko 10:00etatik 14:00etara.

20 URTE ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Irundarrek harrera beroa egin diote Euskal Jiraren itzulerari

Aral
Quiromasaje
Masaje on bat merezi duzu
araiquiromasaje.com
643269276 - Larretxipi Kalea 17, Irun

BASQUE CORNER
Foru Kalea 2, Irun @basquecorner_irun

@lassai_psicologia
lassai
Psikologa
Zerk kezkatzen zaitu?
lassaipsicologia.com - 632402188
San Francisco Kalea 46 (10. lok) GROS, Donostia

aiadek
Pinturen fabrikazioa
✓ Kalitate goreneko produktua
✓ Produktu iraunkorrak
✓ Irunen egindako pinturak
✓ Koloreen erreplikan zehaztasuna
Gabiria Kalea 60-62. Ventasko Industrialdea - Irun - 943 633 946
Profesionalak - Partikularrak - Banatzaileak

Caser Residencialen udako oporrak zainketa zerbitzuekin uztartzen dituzte



Anakan eta Betharramen Caser Residencialek dauzkan egoitzetan uda giroa nabaria da. Egoitzako tailer eta irteerak urtarora egokitzen dira, ura eta kanpoko ekintzak izanik ardatz. Bien bitartean, ordea, egoitzako profesionalek ohiko zerbitzuak eskaintzen jarraitzen dute bai egoitza barnean zein kanpoan erabiltzaileen beharrei erantzuteko.

Udaran zehar Caser Residencial egoitzetako erabiltzaileek hainbat irteera eta tailerretan parte hartu dute. Adibidez, Jaizubia Hipika bisitatu dute. Bertan zaldiei jaten eman eta zaldiak ukitzeko aukera izan dute. Gainera, irteeran bertan pintxoez gozatzeko aukera izan dute. Udaran zehar bestelako ekintzetan ere parte hartu dute egoiliarrek, esaterako, Hondarribian estropadak zuzenean ikusteko aukera izan dute eta Donostian bisitan egon dira.

Uda garaia aprobetxatuz, Hondarribiko hondartzarako irteerak antolatu dira. Hondarra zapaltzeaz gain, egoiliarrek hondartzako ur gazian bainatzeko aukera ere izan dute Gurutze Gorriak eskainitako bainu egokituko zerbitzuari esker. Urari esker udako tenperatura altuak hobeto jasan dituzte.

Egoitzetako instalakuntzak baliatuz, kanpora ateratzeko beharrik gabe, udako festa ere ospatu dute. Bertan, egoitzetako terrazak eta aire zabaletako espazioak aprobetxatuz igerilekuak muntatu eta oinak bustitzeko aukera izan dute erabiltzaileek. Era berean, freskatzen jarraitzeko animatzaileek antolatutako ur jokoetan parte hartu dute.

Urtean zehar egoitzan egiten diren bestelako ekintza, esaterako, arte terapia, lore tailerra edo musikoterapia tailerrak eguraldi onera egokitu eta kalera ateratzen saiatzen dira. Dena den, beroa jasanezina denean tailerrak ohiko moduan egoitza barnean antolatzen dira beti ere egoiliarren erosotasuna baliatuz.

Uda argazki erakusketa batekin biribilduko dute. Erakusketan Caser Residencial egoitzetako erabiltzaileek hilabete batez atera dituzten argazkiak ikusi ahalko dira. Erakusketaren helburua da egindako lana erakustea egoitzara hurbiltzen diren senideei eta bisitariei. Horrela, erakusketako 12 argazki maitagarrienak aukeratu nahi dira, hautatutako lanekin egutegi bat ateratzeko.

Etxez etxeko zerbitzuak aurrera

Pandemiaren ostean Caser Residencialek bere zerbitzuak egokitu ditu. Izan ere, pandemiak etxez etxeko zerbitzuak indartzeko eta sustatzeko beharra erakutsi du. “Caser Cuidados” izenaren azpian, egoitzak era askotariko zerbitzuak biltzen ditu, Gipuzkoako lurralde osoan zehar eskaintzen direnak. Azken batean, zerbitzuaren helburua da egoitzako zerbitzuak kanpora ateratzea.

Orokorrean, zerbitzu sozio-sanitarioak eskaintzen dira asistentzia hori behar duen edonorentzat, hau da, bezeroek edozein adin izan dezaketelarik. Zerbitzu horiek aldi baterakoak edo jarraituak izan daitezke, beharraren araberakoak. Gainera, “Caser Cuidados” programak zerbitzuak edonon jasotzeko aukera ematen du: etxeetan, kanpoaldeetan, ospitaleetan, egoitzetan edo enpresetan. Esaterako, azkenaldian ospitaleetan egunean zehar edo gauez akonpainamenduak egiteko eskaria era nabarmenean handitu da. Erabiltzaile bakoitzera egokitutako plan berezia prestatzen da, koordinatzaile baten gidaritzapean.

Etxez etxeko zainketaren barnean, era askotako profesionalen zerbitzuak eskaintzen ditu Caser Residencialek. Alde batetik, beharrezko osasungintzako profesionalen zerbitzua izango duzu eskura: fisioterapia, psikologia eta neurologia, logopedia eta terapia okupazionala. Bestetik, etxez etxeko laguntzaileak garbitasun lanetan, mobilizazioak egiteko, medikazioa kontrolatzeko eta beste hainbat zeregin egiteko prestakuntza jaso dute. Zaintzaileak berriz, etxeko zereginetan lagundu edo akonpainamenduak egiteko trebatuak izan dira. Zerbitzu guzti horiek 24 orduko teleasistentzia zerbitzu batekin osatuko dira, larrialdi egoera batean berehalako erantzuna eskainiko duena.

Aurretik aipatutako zerbitzuetan interesa duten pertsonak Caser Residencialekin harremanetan jar daitezke 900 103 348 zenbakira deituz.

Auzokideak Xantalengo jaiak ospatzeko elkartuko dira berriro

Abuztuaren 18an Ama Xantalen Eguna ospatzen da egutegi katolikoaren arabera. Urtero moduan, Alde Zaharra-San Juan auzo elkarteak auzoko jaiak ospatzeko makineria guztia martxan du dagoeneko, egun batzuez auzoa batu eta festekiko ilusioa alde zaharreko kale kantoi guztietara zabaltzeko. Gorka Álvarez Aranburu jaien antolaketan inplikatua dago eta prozesua nolakoa den azaldu du.

Xantalengo jaien ospakizuna aspalditik dator. Alde Zaharra-San Juan Auzo Elkartea 2013. urteko otsailean sortu zen eta urte horretan bertan hasi ziren elkarteko boluntarioak auzoko jaiak antolatzen. Gorka Álvarez auzo elkarteko kideak adierazi duenez, berriro auzoko jaiak antolatzen hasteko lehen ahalegin horretan auzoko ikur mitiko bat berreskuratzen ahalegindu ziren: Ama Xantalen Ermita. Izan ere, momentu horretara arte 20 urte igaro ziren ermita erabili edo ekintzak antolatzeko baliatu gabe. Ermitako ateak ireki bezain laster, ikusnahiez bete zen, ermitaren barnean zer dagoen ikusi nahi zutenez, alegia.

Lehen urte horretatik aurrera abuztuaren 18aren inguruan beti egun batez Ama Xantalen ermitako ateak zabaltzeaz arduratu dira auzotarrak. “Auzokideen lan boluntarioan oinarritzen gara eta egun oso batez txandakatzen gara jendeak gure ondarea ezagutzeko aukera izan dezan”, adierazi du Gorka Álvarezek. Gainera, orduz geroztik, Juncaleko apaizen laguntzari esker, urtero meza bat antolatu da. Ermitaren ateak abuztuaren 18an, ostegunean, 10:00etatik 20:00etara eta abuztuaren 20an 10:00etan irekiko dira. IX. Txapelaundi Saria, berriz, abuztuaren 20an banatuko da 12:00etan ermitako plazatxoan.

Txapelaundi Saria

Jaien antolaketa berreskuratu eta urtebete geroago Txapelaundi Saria sortzeko aukera ikusi zuen auzo elkarteak. Izan ere, sari honen sorreraren bitartez auzoko pertsonak errekonozitu nahi ziren. Gorka Álvarezen hitzetan, “Alde Zaharra hirian egiten diren ekintzen eta elkarte askoren jardueraren erdigunea denez, elkarteetatik eta entitateetatik harago joan eta norbanakoek egindako lana saritu nahi genuen”. Hala ere, 2020an eta 2021ean, pandemia testuinguruan, bi salbuespen egin ziren sarien irabazleak hautatzerakoan. 2020an Amaxantalen Zaharren Egoitzako langileei eman zitzaien saria pandemiaren hasieratik adinekoak babesteagatik, kolektibo ahulenetako bat izan baitziren. 2021ean, berriz, sarituak OSI Bidasoako langileak izan ziren pandemia guztian egindako lana aintzatesteko.

Aurten 9. Txapelaundi Saria banatuko dute eta oraingoan Román Morondo izango da omendua. Román Morondok urte luzez Morondo izeneko jatetxea kudeatu du auzoan, beti auzoko bizilagunak laguntzeaz eta auzoarengatik lan egiteko prest egoteaz gainera. Gorka Álvarezek azaldu du urtero auzoko jaietako omendua aukeratzeko galdetegi parte-hartzaile bat antolatzen dutela auzoan, auzotar bakoitzak saria nori emango liokeen proposatzeko aukera duelarik. Auzo elkarteko kideak erantsi duenez, “aurten dozena bat izen proposatu dizkigute, eta auzoko gizon eta emakume batzuen izenak behin baino gehiagotan errepikatu dira”.

Xantalen Danborrada

Egun Xantalengo jaietako ekitaldi arrakastatsuenetako bat danborrada da. Danborrada 2019an batu zen jaietako programara, egitaraua ekintza berri bat batzeko saiakera izan baitzen. Horrela, jaien antolatzaileek antzina auzoko jaietako ekitaldi bat berreskuratzea erabaki zuten. Danborradaz gain, aurretik Xantalengo jaietan, besteak beste, Asto edo Galtzontzilo lasterketa antolatzen baitziren, Urdanibia plazan Musika Bandaren kontzertuaz gainera. Aurtengo jaietarako abuztuaren 18an arratsaldeko 20:00etan kokapen berean berreskuratu den beste ekintza bat dugu kontzertua.

Gorka Álvarezek auzoko jaiez mintzo dela zera azaldu du, “gure auzoa hiriaren bihotza da eta jende askok bere bizitza hemen egiten duela argi dugu”. Horrela azaltzen du auzoko jaiek pizten duten interesa. “Edonork parte hartu dezake danborradan danborra jotzen, txarangan edo labandero bezala”, gehitu du Álvarezek. Aurten Irungo Atsegiñak 100 urte betetzen dituenez elkarteko sukaldariek Xantalen Danborradako desfilean parte hartuko dute. “Guztira 50 danbor dauzkagu, baina jende asko animatuko balitz danbor gehiago edonon lortzeko moldatuko ginateke”, azaldu du auzo elkarteko ordezkariak. Gorka Álvarezen azaldu duenez, oraingoz helduen danborrada antolatzen dute soilik, baina bertan parte hartzeko gogoz dagoen haur eta gazte talde bat dagoela ikusiko balute, arazorik gabe antolatuko lukete txikien talde bat.

2019an, Danborradarekin hasi zirenean konturatu ziren auzoak ez duela dianarik. Horrela, Esteban Velasco musikariari diana bat konposatzea eskatu zioten eta 2019tik diana propioa dute. Diana abuztuaren 20an 8:30etik aurrera joko da auzoko karriketatik. Aurten Esteban Velascok ere konposatuta Xantalendarrak izeneko martxa berri bat joko du Danborradak, espresuki Xantalen Danborradarentzako sortua izan dena.

Abuztuaren 20an, larunbatean, 19:00etatik aurrera auzoko kaleak zeharkatuko ditu. Xantalen egoitzan egingo da lehenengo geldialdia, danborradaren martxak egoiliarren aurrean jotzeko. Abuztuaren 21ean, berriz, igandean, Trikuharri Elkarte Soziokulturalak Eskulan eta Birziklapen tailerra egingo du Alde Zaharra-San Juan auzo elkarteko egoitzan.

Elkartasun efektua

Gorka Álvarezek azaldu duenez jaien antolaketan inplikatuta dauden boluntarioen arteko laguntasuna ezinbestekoa da. “Esan daiteke gurea ia hamabostaldi kultural bat dela, 18an Xantalengo jaiak ospatzen hasten garelako eta San Ramonekin bukatzen dugulako 31n”, azaldu du auzo elkarteko kideak. Dena den, Xantalengoak gehiago dira auzo giroko jaiak eta San Ramon jaia, berriz, bakanal bat da aurrekoekin alderatua, batez ere, espartin lehiaketa”.

Alde Zaharra-San Juan auzo elkarteak lan etengabea egiten du auzoko bizitza sustatu eta askotariko egitasmoak proposatzeko. Esaterako, Gabon Zahar egunean Urte Zahar Panpina atera eta plazan erre zuten gerra aurretik egiten zen bezala. Auzoaren errealitatea berezia da, izan ere, adineko bizilagun asko daude eta, beraz, sare sozialen ordez, informazioa atariz atari zabaltzea eraginkorragoa da. Gorka Álvarezek nabarmendu duenez, “horretan gabiltza eta indarrak dauzkagun bitartean eta lagun taldea mantentzen dugun bitartean aurrera jarraituko dugu”.

Igor Emery, Real Unión klubeko presidentea:

“Aldaketez betetako momentu oso garrantzitsu batean gaude”

Real Unión klubak erronkez betetako denboraldi bati ekingo dio aurten. Denboraldia hasi aurretik aurreko urteko akatsak barneratu eta desafio berriei aurre egiteko prestatu dira talde irundarreko jokalariak. Igor Emery presidenteak adierazi duenez, RFEF mailan lehiatuko den lehen taldeaz gain, kluba ahalegin berezia egiten ari da harrobia indartu, beste klubekiko harremanak landu eta instalakuntzak hobetzeko.

Nola baloratzen duzue aurreko denboraldia?
Urte bat igaro da jada taldea hartu genuenetik eta denboraldi oso intentsua izan da. Klubarentzat urte on eta positiboa izan da, gauzak ondo egin ditugu eta afizioaren aldetik ere bestelako ilusioa nabaritzen dugu. Orain iazkoa ahaztu gabe, aurrera jarraitu nahi dugu datorren urtean koska bat gehiago igotzeko, goraka jarraitu eta aurrera eginez.

Denboraldi hasierak lan askoko garaiak dira?
Bai, klubean jokalariek ekainean hartzen dituzte oporrak, baina klubak lanean jarraitzen du. Denboraldi berria hasi da dagoeneko, nahiz eta Ligako lehen partidua abuztu bukaeran izango dugun. Talde berria lanean dabil aurten aurrerapausoak ematen jarraitzeko.

Zeintzuk izango dira aurten Stadium Galen ikusiko ditugun aurpegi berriak?
Dagoeneko lehen jokalariak iritsi dira. Gure helburua taldeari jarraipena ematea da. Aitorrek talde teknikoaren buru izaten jarraituko du, horrela aurreko urteko lanari jarraipena emateko. Aurten jokalari berriekin aurreko urteko hutsuneak bete eta zailtasunak gainditu nahi genituen. Aurtengo exijentziak kontuan hartuta, maila berria izanda, hobetu beharreko gauzak ikusi genituen jokalarien profilari dagokionez. Iaz egiztatu genuen maila oso gogorra dela eta ez duela zerikusirik orain dela bi urteko B mailarekin, hori atzean gelditu da eta lehen RFEF maila gogorragoa dela.

Nola jaso duzue talde aldaketaren albistea?
Iaz aipatu genuen kategoria gogorra zela eta aurten ere horrela izango da, seguruenik iaz baino gogorragoa. Bi multzo daude eta aurten beste multzora pasako gara. Bietan lehia aurreko urtekoa baino gogorragoa izango da. Kasu honetan, iazko multzoarekin konparatuta, talde berri asko izango ditugu eta Mediterraneoan dauden taldeak oso indartsuak dira. Beraz, berdin du bietako zein multzotan gauden, gogorra izango da eta oso zorrotza. Horregatik, argi geneukan batez ere guk hobetu behar genuela eta, hortik aurrera, besteen aurka lehiatzea tokatzen da.

Nola ikusi duzu taldea aurre denboraldian aurtengo helburuetara begira?
Aurten saiatu gara hasieratik aurre-denboraldiko norgehiagoka indartsuak izaten. Lehenengoa Bordelen izan genuen, Girondinsen aurka. Beraiek gure aurka neurtu aurretik partidu dezente jokatuak zituzten, beraz, beste erritmo bat zuten jada. Gero Real Madrid Castillaren aurka partidu gogorra jokatu genuen, baina hori da nahi genuena, hasieratik maila altuko norgehiagokak izatea lan fisiko, tekniko eta taktiko gehiago egin eta lehenbailehen hobetzen hasteko.

Udara klubean hobekuntza lanak egiteko aprobetxatu duzue?
Bai, nahiz eta aldaketak iaz hasi genituen. Kluba digitalizatzen ari gara eta denda laster martxan izatea espero dugu aurtengo arropa berriarekin. Aspalditik daude Stadium Galeko instalakuntzak berritu gabe eta hori ezinbestekoa da zaleak zelaira gustura etortzeko. Oraintxe bertan eserlekuak aldatzeko proiektua martxan dugu eta gehiago jarriko ditugu 4.000 eserlekuetara iristeko. Uste dut garrantzitsua dela klubaren barnean egiten den lana kanpotik ere ikustea, askotan oharkabean geratzen baita. Aldaketez betetako momentu oso garrantzitsu batean gaude.

Instalakuntzez gain, klubaren harrobia indartzeko lanari ere eusten diozue?
Klubaren etorkizuna bermatzeko hor indar handia jarri behar dugu. Uztailean Udako Campusa izan dugu eta aurten berriro neska eta mutil pilo bat izan ditugu gurekin, iaz elkartu ezin izan genituenak. Beraiekin eta beraien gurasoekin batera hazten jarraitzeko asmoa dugu. Bi abiadura ezberdinetan lan egiten jarraitu nahi dugu. Batetik, epe laburrean ezin dugulako lehen taldea gelditu eta etorkizunera begira, epe ertain edo luzean, txikiekin harrobia lantzen jarraitu nahi dugu.

Gainera, kluba mugaren bi aldetara zabaldu nahi duzue?
Kiroletik abiatuta, gure kasuan futboletik, harremanak sendotu nahi ditugu. Lehenbizi Irunen, hirian klub asko daude eta bai futbolean zein beste kiroletan aritzen direnak. Iaz ere Hondarribiko klubarekin gauzak egiten hasi ginen. Berarekin eta Lesakarekin ere harremana dugu, Gure Txoko eta Beti Gazte taldeetako atezainak gurekin entrenatzera etortzen direlako, beraiek ez baitute atezainentzako entrenatzailerik. Zabaltzen jarraitzeko asmo horretan, Ipar Euskal Herrira hurbildu gara eta Baionarekin norgehiagoka bat jokatu genuen iaz. Angelurekin, Biarritzekin eta Eglantinsekin elkarlanak egin ditugu orain arte, horrela, harremanak sendotuz. Adibidez, egun hauetan Hendaiako jokalariak gure instalakuntzetan izan ditugu entrenatzen. Gure asmoa zabaltzen jarraitzea da. Real Unión mugako klub bezala ezagutu izan da orain arte eta gure nahia da hemendik aurrera mugaz gaindiko klub bihurtzea. Jendeak kluba ezagutzea nahi dugu.

Nola begiratzen du Real Uniónen proiektuak etorkizunera?
Aurretik egindako lan guztiari jarraipena eman nahi diogu. Proiektu asko abian jarri ditugu, proiektu handiaren barnean proiektu txiki asko dauzkagulako eta aurrerantzean gehiago ere etorriko dira. Egia da klubean sartu ginenean dena makal zebilela eta, beraz, poliki-poliki dena indartzen saiatu gara. Klubeko langileok ere gure jardunean hobetzen saiatu gara, bakoitzak bere lana hobetzea lortzen badu klubak ere nabarituko duelakoan gaudelako. Norberak bere nahiak izan behar dituelako.

Irun Gizonezkoen Gipuzkoako Pentatloi Txapelketaren lekuko izan da

Eguzkia eta tenperatura altuak kirol probarentzako zailtasun erantsiak izan dira

Irun Gipuzkoako Pentatloi Txapelketaren lekuko izan zen abuztuaren 7an. Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak antolatutako txapelketa Euskal Jiraren 2022ko edizioaren barruan kokatu zen. Andoni Iruretagoyena, Izeta VI.a, izan zen Gipuzkoako lehenengo pentatloi txapelketan. Urdanibia plazara herri kirolzaleak gerturatu ziren Euskal Jira osteko igandean.

Gizonezkoen Gipuzkoako Pentatloi Txapelketa goizeko 11:30etan hasi zen. Pentatloia bost probak osatzen dute: Harri jasotzea, Giza proba, Aizkora, Txingak eta Korrikaldia. Parte hartzaileek proba horiek jarraian egin behar izan zituzten, izan ere, proba bat bukatu arte ezin baitute hurrengoa hasi.

Pentatloi txapelketa harri jasotze probarekin hasi zen eta parte-hartzaile bakoitzak 100 kg-ko harri biribilarekin 20 altxaldi egin zituen. Jarraian, giza probaren barnean bi plazako luzeran, hau da, guztira 48m, 400 kg-ko harria arrastaka eraman behar izan zuten. Aizkoraren atalean 45 ontzako bi enbor eta 54ko beste bat moztu behar izan zituzten. Txingetan, lau plazako luzeran, 96 metroko luzeran, 50 kg-ko txingak eskuetan eraman zituzten. Azkenik, 2 km-ko korrikaldia egin ostean amaitutzat eman zen lehia.

Irabazlea Andoni Iruretagoyena, Izeta VI. izenez ezaguna dena izan zen, ziklo osoa 25 minutu 44 segundo eta 54 ehunekotan, denborarik laburrenean, egin zuen parte hartzailea izan baitzen. Aiakoaz gain, proban Iñaki Errazkin, Jagoba Otaegi, Andoni Iruretagoiena, Joseba Otaegi, Xabier Zaldua, Julen Gabirondo eta Aratz Mugerza lehiatu ziren. Eguzkia eta tenperatura altuak, ordea, kirolarien lehia zaildu zuten, txapelketak aurrera egin ahala Urdanibia plazan itzalak desagertu egin baitziren aurkariak eguzkitan utziz.

Norgehiagokan bigarrena, Xabier Zaldua izan zen, 26 minutu, 41 segundo eta 95 ehunekotan ibilbidea amaitu aurretik. Hirugarrena Julen Gabirondo izan zen 28 minutu, 57 segundo eta 95 ehunekotan burutu ostean. Iñaki Errazkin laugarren sailkatu zen 29 minutu, 32 segundo eta 94 ehunekoko denbora lortu ostean. Bosgarren postua Joseba Otaegirentzat izan zen 29 minutu, 48 segundo eta 28 ehunekoko denbora lortuta. Seigarrena Jagoba Otaegi izan zen 33 minutu, 12 segundo eta 45 minutuko denborarekin. Irunen ospatutako Gipuzkoako Pentatloi Txapelketaren sailkapenean azkena Aratz Mugerza izan da 34 minutu 24 segundo eta 42 ehuneko denborarekin.

Hiru zatitako lehia
Irungo Pentatloi Txapelketa 3 txanda ezberdinetan jokatu zen, guztira 7 kirolarik parte hartu baitzuten bertan. Lehen txandan Xabier Zaldua, Jagoba Otaegi eta Joseba Otaegi lehiatu ziren. Zalduak hasieratik tarte nabaria atera zien txandako beste aurkariei eta horrek amaierako sailkapenean bigarren postua eman zion, irabazleak lortutako denboratik minutu eskasera geratu baitzen.

Bigarrenean, berriz, Iñaki Errazkin eta Julen Gabirondo aritu ziren. Harri jasotze eta Giza Proban Errazkinek abantaila hartu bazuen ere, Gabirondok aizkorarekin bien arteko tartea murriztea lortu zuen. Txingetan Errazkinen beherakada aprobetxatuta Julenek aurre hartu zien eta txandaren hasieran espero ez bezala, Gabirondo izan zen erronka amaitzen lehena.

Hirugarrena, Aratz Mugerza, eta Andoni Iruretagoyena, garailea. Hirugarren txandaren hasieran lehia parekatua egon bazen ere, giza proban Izetak tarte handia atera zion Mugerzari eta Izeta VI.ak lortu zuen horrela irabazle txapela.

Urdanibia norgehiagokaren lekuko
Borja Olazabal Irungo Udaleko Kirol ordezkariak adierazi duenez, “Irunen egingo den beste ekitaldi berri bat da, eta, gainera, lehenengo aldiz izango da ofiziala. Horregatik, oso harro gaude Txapelketaren egoitza izateaz”. Kirol ordezkariak azaldu duenez, Irun ekitaldiz beteriko hiri bihurtu nahi dute, baina, batez ere, kirol arloan erreferenteak dira inguruan, egiten diren maila altuko eta era askotariko txapelketak antolatzen direlako. Txapelketa ospatu aurretik Borja Olazabalek aurreratu zuen herri kirolak izanda ikuskizuna

Oltzeko aldare-harri erromatarra Oiasso Museoan ikusgai

Iturria: Gipuzkoa Kultura (51. Ara de Oltza.© Xabi Otero)

Maiatzaren 7an "Erraldoien bizkarren gainean. Euskal arkeologiaren historia" behin behineko erakusketa berria estreinatu genuen Oiasso Museoan. Erakusketa irailaren 25a arte egonen da gurean eta euskal arkeologiaren historiaren ibilbidea azaltzen du zenbait pieza arkeologikoren bitartez. Bertan, euskal arkeologiak izandako eboluzioa eta diziplinaren aldaketa metodologikoak, kontzeptualak eta interpretaziozkoak ikusiko ditugu, batetik, bai eta, bestetik, beren ikerketekin, askotan aitzindariak, arkeologia zaletasun bat baino askoz gehiago ez zena, zientzia bihurtu zuten pertsonak ere. Gure aitzineko pertsona horiei guztiei eskainia dago erakusketa hau, gaur egungo gure ezagutza horien gain eraikitzen baitugu. Bertan, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako objektuak ikusi ahal izanen dira, azken 150 urteetan gizartean izandako aldaketen isla direnak.

Erakusketa osatzen duten pieza horien artean Gipuzkoan topaturiko erromatar garaiko aldare-harri edo opagai bat dago. Luis Pedro Peña Santiago eta Fermin Leizaolak 1971an argitaraturiko Real Sociedad Vascongada de Amigos del País aldizkariko 27. alean ematen digute lehen aldiz pieza honen berri. Urte berean identifikatu omen zen aldare-harri hau, Aitamarren baserriko Agapito Oyarbide artzain zegamarraren txaboletako baten paretan zegoen, Aitzgorri mendilerroko Oltze dermioan. Pieza harearriz egina dago eta tamalez anepigrafikoa da, hau da, jatorrizko inskripzioa ezabatuta dago. Dena den, opagaiaren tamainak eta goi eta beheko partean dituen moldurek pieza epigrafiko erromatar bat dela adierazten digute. Bere neurriak honako hauek dira: 36x20x15 cm eta inskripzioa egon beharko lukeen erdialdeko zatian, orain dela ez horrenbeste eginiko gurutze kristau txiki bat dauka. Aldare-harria artzain txabolako ateburuaren gainean zegoen, paretan sartuta. Antza, etxola hau 1938. urtean berritu omen zen, bere hormetako batean adierazten denez. Bertako artzaina zen Agapito Oyarbideren esanetan, 1971an 78 urte zituenak, pieza erromatar hau Zalduondo ingurutik ekarria izan zen. Artzainaren testigantzaren arabera, aldare-harria Aitzgorriko Santo Kristo ermita egiten zebiltzan hargin batzuek eraman zuten bere txabola ingurura. Dena den, pieza hau eraikuntza material gisa berrerabili bazen ere, nolabaiteko balio berezia izaten jarraitu zuela erakusten digu bertan txertatutako gurutzeak.

Esan bezala, Oltzeko aldare-harriak jatorria Araban duela uste da, baina Aitzgorri mendilerroaren bi aldetara topaturiko aztarna erromatarren multzoarekin bat egiten duela esan beharra dago. Iturri idatzi eta arkeologikoek arabar lautadan Iter - XXXIV Asturica-Burdigala (Astorga-Bordele) galtzada erromatarra eta honen inguruan kokaturiko bizigune batzuen presentzia adierazten dizkigute. Ordea, ez dugu gisa bereko garaiko iturririk Goierriko eskualdean. Hala ere, Oria arroan barrena topaturiko aztarna arkeologikoek aipaturiko galtzada eta gipuzkoar kostaldetik zihoan erromatar itsas bidea -via maris- lotuko zituen ardatz bat marrazten dutela dirudi. Hegoaldetik iparralderako gutxi gora beherako noranzkoan, Goierriko aztarna arkeologikoak lirateke: San Adrian tuneleko aztarnategi arkeologikoa, Zegamako San Pedro ermitako inskripzioa, Idiazabalen agerturiko txanponak eta Atauneko Otadizelai eta Jentilbaratza dermioetan eta zenbait kobazulotan (Lokatza, Limurita eta Sastarri IV izenekoak) topaturiko txanpon eta bestelako objektu eta zeramika zatitxoak. Aurkikuntza hauek, San Adrianeko pasabideaz gain, Etxegarate eta Lizarrustiko igarobideak ere erabiltzen zirela adierazi dezakete. Oriaren arrotik gora, itsasoranzko norabidean, erromatar garaiko asentamendu ugari ditugu, batzuk aire zabalean (Bidania-Goiatzeko Sanpedroburu; Tolosan Laskoaingo San Esteban; Belauntzako San Joan Bautista eliza; Andoainen Goiburuko San Esteban; Usurbilen Irigain...) eta beste batzuk kobazuloetan (Intxurmutegi Tolosan; Beondegi I Albizturren eta Txispiri III Gaztelun), Andoain eta Villabonan agerturiko txanpon solteekin batera. Esan bezala, Oltzeko ara aurkikuntza hauen testuinguruan ulertu behar dugu.

Gaur egun Aitzgorriko pieza erromatar honek Gipuzkoako Gordailuan hartzen du atseden. Dena den, gorago aipatu dugunez, irailaren 25a arte Oiasso Museoan izanen dugu ikusgai "Erraldoien bizkarren gainean. Euskal arkeologiaren historia" erakusketaren baitan. Badaezpada, gure ordutegiak gogorarazten dizkizuegu: asteartetik larunbatera 10:00-20:00; igandetan 10:00-14:00. Gainera, larunbatero erakusketa honen inguruko bisita gidatuak izanen dira 3€-ren truke, bai euskaraz bai gaztelaniaz. Anima zaitez!

Jokin Lanz

ESTUDIO FOTOGRAFÍA
GO VER™
Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100.2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

SAN VICENTE DE PAUL HH

Denbora-pasak

7 hitz: Hondartza

W	T	D	X	W	R	X	O	X	B	D	U	Y	D	
M	X	W	V	T	N	O	I	E	A	S	M	O	D	
V	A	D	L	N	H	J	E	J	I	H	A	D	K	
T	N	B	H	K	M	K	Y	V	N	I	B	D	W	
E	K	C	G	P	C	M	M	A	U	T	M	M	K	
T	L	U	X	Z	L	N	E	M	J	Z	C	F	Y	
Z	E	A	W	V	P	M	X	V	A	A	J	Q	Y	
A	T	S	Q	H	E	C	R	Z	N	L	R	R	C	
U	A	V	O	B	Y	M	A	R	T	K	S	V	J	
L	E	E	U	L	G	B	E	N	Z	I	V	X	H	
K	T	G	N	P	A	R	F	C	I	N	C	K	A	
I	U	O	Q	P	C	T	H	E	G	M	B	F	R	
U	Z	T	I	O	E	L	U	J	Z	D	D	Z	E	
D	G	G	H	F	G	B	M	T	O	A	L	L	A	

Olatu, bainujantzi, harea, toalla, itzalkin, txankleta, etzaulki

						6	7	
						3		8
8	5				6		2	
6				2	4	9		
		7		5			3	
5		3						4
1			2	4	7	5	6	
9	7	5						
	6		8					3

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Bi mutil gaixto

Egun batian ziren bi mutil oso gaixtuak eta amak egin zittun jarri preso.

Aguazilla zen kanpuan.

Eta mutill batek egin zuen bota zerrikeri bat.

Eta aguazillak esan zion mutillaren amari, egin zutela bota zerrikeri bat.

Esantzion amak aguazillari:

- "Flan" izango da.

Eta aguazillak esantzion etzela "flan", zerrikeri bat.

Eta esantzion amak aguazillari:

- Izango da "atso".

- "Atso etzen", zen orantxe.

Hondarribiko Portuko Juan Inazio Gonzalez Sagardia 10 urteko haurrari jasoa (1959-X17).

(El Bidasoa, 1959-XI-7)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga Euskaraz, Irunen barrena

HIRUBIDE DBH2

JASONE OSORO IDAZLEA HIRUBIDEN

Jasone Osoro idazlea, urtarrilaren 27an, osteguna, etorri zen Hirubideko DBH2ko ikasleei hitzaldi bat ematera. Hirubideko liburutegian izan zen, segurtasun distantziak mantenduz eta airearen kalitatea CO_2 neurgailuarekin neurtuz.

Hitzaldiarekin asko ikasi zuten ikasleek: dibertitu egin ziren, oso interesgarria iruditu zitzaien eta idazketaren eta irakurketaren ikuspegi berri bat hartu zutela sentitu zuten.

Iván Gómez, artista:

"Nire sorkuntzetan elementu desberdinen arteko erlazioez interesatu naiz"

"Gustatuko litzaidake jendea uda kulturaz gozatzeko aprobetxatzera animatzea"

"Bost urte izan dira nire ekoizpen guztia harremanetan eta uhartean oinarritzen, eta orain amaitutzat ematen dut garai hori"

Menchu Gal erakusketa aretoak Ivan Gómez artistaren lana jasoko du abuztuaren 28ra arte. "Pliegues temporales" izenpean, artista irundarrak areto berean Iványen proiektuak eta hainbat pieza etnografiko eta ondarezkoak batzen dituen elkarrizketan murgiltzea proposatzen dio bisitariari. Erakusketa irekita dago asteazkenetik larunbatera, 18:00etatik 21:00etara, eta igande eta jaiegunetan, 11:30etik 13:30era. Iván Gómez artistak azaldu du zertan oinarritu den erakusketa hau sortzeko.

Nola definituko zenuke zeure burua?
Ivan Gomez dut izena. Artista plastikoa eta bisuala naiz. Ikasketak Bartzelonako unibertsitatean hasi nituen. Gero, Kuban zinema ikasketak egin nituen eta Bilbon, egun bizi naizen hirian, ikerketa- eta sorkuntza-master bat egin nuen. Nire praktika pinturatik collagera joan da eta tartean sortzen diren harremanez arduratu naiz, gauza bat beste batekin edo beste pertsona batekin kontaktuan dagoenean gertatzen den harremanaren inguruan. Hortik dator harremanekiko dudan interesa.

Irundarra izanik, zerbait berezia sentitzen duzu Menchu Gal aretoan erakusteko aukera izateagatik?
Bai, egia esan, nire lana Irunen erakusteko gogoa nuen. Baina, batez ere, erakusketaren beraren gaiarengatik, Irungo testuinguruari oso lotuta baitago.

Zer adierazi nahi duzu "Pliegues temporales" izenarekin?
Erakusketa Haizea Barcenillak komisariatzen du eta berarekin batera ikerketa bat egin dugu San Telmo Museoaren, Gordailuaren eta Udal Artxiboaren funtsetan oinarrituta, Faisaien Uhartearen inguruko imajinarioari buruz. Irudien bidaia honetan, garai desberdinetako irudi eta objektuekin lan egin dugu, eta tolesduren ideia sortu da.

Lehen aldia izan da Haizea Barcenilla komisarioarekin lan egin duzula?
Bai, lehen aldia izan da elkarrekin lanean. Berarekin harremanetan jarri nintzen erakusketa hau bost urteko lanaren emaitza delako. Lan horretan hainbat erakunderen laguntza izan dut. Besteak beste, Irungo Udala edo Eusko Jaurlaritza. Irungo Udalaren aldetik, jaso nuen lehenengo laguntzetako batean, Haizea izan zen laguntza horien epaimahaikide. Horregatik, erakusketa honetarako aukeratzea egokia izan zitekeela iruditu zitzaidan, proiektuaren hasieran konfiantza izan zuen norbaitekin batera lan egitea suposatzen baitzuen.

Zure lan guztietan ikusi daiteke erlazioekiko interesa?
Bai, horrela ulertzen dut nik artearen mundua eta mundua oro har. Uste dut ez garela bakardadean bizi eta, horren ondorioz, beste pertsona, ingurune eta pentsamendu batzuekin harremanetan gaude etengabe.

Erakusketa honekin, Faisaien Uhartearen inguruan egindako lanaren etapa ixten al duzu?
Bai, hala da. Bost urte izan dira, eta lehenago aipatu dudan Anartz Ormazarekin kolaboratzeaz gain, Haizea Barcenillarekin lan egin dut eta Iraitz Agirrerekin batera "La Isla de los Faisanes: Modos de narrar la historia" liburua argitaratu dut. Ikerketa zabala duen saiakera antzeztu bat da. Liburu txiki bat ere atera dut, Bilboko Rekalde Aretoan aurkeztu nuena, literatura hedatuaren erakusketa batekin batera. Bost urte izan dira nire ekoizpen guztia harremanetan eta uhartean oinarritzen, eta orain amaitutzat eman dut garai hori.

Zer beste proiektu dituzu oraintxe bertan esku artean?
Material organikoarekin ari naiz lanean, soberakinen ideia lantzen, hondakinarekin eta ekonomia zirkularrarekin. Orain ekologiarekin edo bizikidetzarekin lotutako ideiak garatzen ari naiz buru-belarri, pandemia osteko pentsamendu gisa.

Beraz, uda ere erakusketak bisitatzeko garai egokia da?
Bai. Aretora hurbiltzera animatzen dut, aretoa oso tenperatura freskoan baitago piezak kontserbatu ahal izateko. Gustatuko litzaidake jendea uda kulturaz gozatzeko aprobetxatzera animatzea.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

Atera argazki bat egutegirako

Opor egun hauek aprobetxatzen ari zara eta Irungo paisaia polita edo gogoangarria iruditu zaizu? Ziur argazki bat atera duzula!

Bada, nahi baduzu, urtero egiten den egutegirako aurkez dezakezu eta auskalo, aukeratua izan daiteke!

Informazio guztia Irungo Udalaren webgunean duzu eta bertatik bidali ahal dituzue argazkiak.

Honako hau izango da egutegiaren gaia: Lau urtaroak Irunen.

Argazki guztien artetik hamahiru aukeratuko dira, azalekoaz gain. Hain zuzen ere, Irungo Argazki Elkarteak aukeratuko ditu, urtero lagundu ohi baitu udal egutegia editatzen.

Argazkiak aurkezteko epemuga: Azaroaren 19a.

Garbitu zure bizikleta doan

Irunek bizikleta garbitegi bat estreinatu du Meaka auzoan, Ibarrola hiribidean, Bide Hezkuntzako pistaren ondoan.

Paseoan atera bazara eta zure bizikleta zikindu baduzu, jada ez duzu ez garbitzeko aitzakiarik!

Bizikletentzako bi euskarri daude, eta beraz, lagunekin joan zaitezke, atseginagoa izan dadin.

Gazte Kultura Bonua 2022

2022an 18 urte bete badituzu, eskatu 400 €-ko zure kultura-bonua.

Uztailaren 25ean ireki da Gazte Kultura Bonua eskatzeko epea, eta produktu eta jarduera kulturalak erosteko eta gozatzeko erabili ahal izango duzu.

Bonua 3 ataletan banatzen da:

- 200 euro zuzeneko arteetarako, kultura-ondarerako eta ikus-entzunezko arteetarako. Adibidez, arte eszenikoetarako, zuzeneko musikarako, zinemarako, museoetarako, liburutegietarako, erakusketetarako eta jaialdi eszeniko, literario, musikal edo ikus-entzunezkoetarako sarrerak eta abonamenduak.

- 100 euro, euskarri fisikoko kultura-produktuetarako. Adibidez, liburuak, aldizkariak, prentsa edo bestelako aldizkako argitalpenak; bideojokoak, partiturak, diskoak, CDak, DVDak edo Blu-Ray.

- 100 euro kontsumo digitalerako edo lineako kontsumorako. Adibidez, musika, irakurketa edo audio irakurketa plataformetarako harpidetzak eta alokairuak, audioliburuak erostea, liburu digitalak erostea (e-bookak), multimedia fitxategiak deskargatzeko harpidetza (podcastak), lineako bideo-jokoetarako harpidetzak, prentsarako harpidetza digitalak, aldizkariak edo bestelako aldizkako argitalpenak.

Bonu hori eskatu ahal izateko, ezinbestekoa da ziurtagiri digitala (NANe edo FNMTren ziurtagiria) edo Cl@ve autentifikazio-sistema edukitzea.

BONO CULTURAL

Besarkada bizitzari. Odola da bizitza

Odola eman dezakezu 18 eta 65 urte bitartekoa bazara (60 urte lehenengo aldiz balitz), 50 kg. baino gehiago pisatzen baduzu eta osasuntsu bazaude.

Emakumeek, urtean, hiru aldiz eman dezakete odola eta gizonek, askoz jota, lautan.

Odol emateen artean bi hilabete, gutxienez, pasatu behar dira.

Odola eman aurretik, segurtasunagatik, bai emailearentzat zein jasotzailearentzat, osasun elkarrizketa bat egiten da, eta emailearen tentsioa zein hemoglobina maila begiratzen da.

Non eman dezaket?
Irungo Iraso Gizarte Zentroan (Virgen Milagrosa kalean) ostegunetan 16:30etik 20:30era, hilabete bakoitzeko lehen ostegunetan izan ezik.

Euskadiko Odol Emaileen webgunean egungo odol-maila kopuruak kontsultatu ahalko dituzu, horrela noiz eta zein odol-taldetako donazioak behar diren jakin ahal izateko.

Gainera, Odol emaileen aplikazioa jaitsita behar duzun informazio guztia izango duzu eskura!

Udaletxean lan egin nahi duzu?

Karrera amaitu duzu eta oraindik ez duzu lanik aurkitu?

30 urte baino gutxiago badituzu eta zure karrera amaitu baduzu, jakin ezazu Irungo Udala 4 pertsonaren bila dabilela.

Eskaintzak 30 urtetik beherako pertsonak kontratatzeko Lehen Esperientziak programaren barruan daude. Praktikaldiko kontratu interesgarriak dira, urtebetekoak.

Hauek dira eskaintzak:

• Irungo merkataritza eraldatzeko teknikari bat.

• Hiri-mugikortasun iraunkorreko eta energia-eraginkortasuneko teknikari bat.

• Elkarreragingarritasuneko eta administrazio-prozesu digitaletako teknikari bat.

• Segurtasun informatikoko eta zibersegurtasuneko teknikari bat.

Izen ematea Irungo Udalaren webgunearen bitartez egin behar da.



ABUZTUAREN

18an

Antzerkia

Zer: "Melancolía" hitz-jokoz betetako ikuskizun surrealista Joan Estraderen eskutik.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua: 20:00etan.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

21ean

Zirku ikuskizuna

Zer: "Aukerak" zirku ikuskizun bat da non bizitzako erabakiei eta joanekoa baino ez den bidaia batean aukeratu behar diren bideez ausnartzen den.

Non: Urdanibia plazan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: Doan.

21ean

Musika

Zer: Uxía eta Javier Ruibal musikarien "Da túa cas a á miña" proiektuaren aurkezpena, Bidasoa Folk jaialdiaren barruan.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua: 21:00etan.

25ean

Antzerkia

Zer: Teatro Traperoren "Por hacer un favor" antzezlanak beldur esezenikoko agerraldi batengatik desagertutako hautagai politiko baten istorioa kontatuko du.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua: 20:00etan.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

27an

Zinema

Zer: "Spiderman. Un nuevo universo" filma.

Non: Landetxako frontoian.

Ordua: 22:00etan.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

28an

Antzerkia

Zer: "Historias de un baúl" emanaldiak Fidel eta Capulitaren istorioa kontatzen du, bi pertsonaia maitagarri, bidaiari, zirtzil, ameslari eta lagun, antzinako kutxa batekin bizitzan gora doazenak.

Non: Gabarrari plazatxoan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: Doan.

Denbora-pasen emaitzak



3	1	2	4	8	9	6	7	5
7	4	6	5	1	2	3	9	8
8	5	9	7	3	6	4	2	1
6	8	1	3	2	4	9	5	7
4	2	7	9	5	8	1	3	6
5	9	3	6	7	1	2	8	4
1	3	8	2	4	7	5	6	9
9	7	5	1	6	3	8	4	2
2	6	4	8	9	5	7	1	3

Masaje on bat merezi duzu!

Aral
Quiromasaje

- Kiromasajea
- Kirol masajea
- Erreflexologia podala
- Bentosak
- Drainatze linfatikoak

www.aralquiromasaje.com - Larretxipi Kalea 17, Irun - 643 26 92 76